

...eta

Kitto!

847 zkia.
2013-V-10



Transmisioa ez da eten

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



DOKTOREAK:

Antonio Murillo / Ainhoa Zulueta / Susana Sierra / Maitane G. Iñiguez

Kasu konplexuetako
eta hezur eta
hortzoi gabeko
inplantologian
ADITUAK

PUNTA-PUNTAKO
inplantologia,
OSTEOINKORPORAZIO
teknika BERRIA
erabiliz



Inplantologia

Prezio bereziak!!!

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostegunera:

08.00-22.00

Larunbatetan: 10.00-14.00



Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52



IRAZABAL
clínica dental

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

ASTEAN ESANAK

"Euskaldunok badugu drama bat: euskaraz jarduteko beharrik eza. Gaur ez dago euskaldun elebarririk: aurrean dugunak beti daki gaztelera. Hala ere, euskaraz egiten dugu; horrek meritu handia dauka. Harro egon behar ginatete"

"Guk txikitan, ikastolan geundela, ikasliburuak gaztelaniaz genituen. Baina, azalpenak euskaraz jasotzeaz gain, lanak ere euskaraz egiten genituen. Oraingo ikastolako haurrek euskarazko ingelesezko ikasliburuak eduki beharko lituzkete; hartara, desiratzen egongo liriateke gero errekreoan euskaraz jarduteko"

"Gauza batzuetan aurrera egin dugu. 1980ko hamarkada hasieran hainbat titulu irabazi zuten Real eta Athletic haiek oso ekipo vascoak ziren, baina jokalaria ia denak erdaldunak. Oraingo jokalaria gehienek euskaraz egiten dute, eta txukun gainera"

"Gure prozesuko beste 'baina' bat: zer produktu kultural onak sortzen ari garen, eta zein gutxi kontsumitzen diren"

(LAU ESALDIAK ANDONI EGANAREN DIRA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

JARRI.- Ipini, ezarri. "Lege barrixak jartzia errezagua kunplidu eragittia baiño". Jezarri, eseri. "Ahal zan moduan sofara eruan eta jarri genduan". Landareak lurra hartu. "Juan zan astian sartu genduzen aza-landarak jarri dira eta ederrak datoz". Ohitu, egoera berrira egin. "Kanpora jua ezkeru, onena bertako gauzetara jartzia da".

JASO.- Jausita dagoena alizatu. "Lurrera jausittako zaldi bat jaso eziñik ebillen gizon pilla bat". Goraipatu, laudatu. "Gurasuak eta norberaren jaiotzako herrixa jasotzia, seme onaren obria". Eraiki. "Azkenian jaso dabe udaletxe barrixa". Batu, bildu, erakarri. "Oin fooball taldia ondo doiala ta, bazkide barri mordua jaso dabe". Garbitu, atondu, txukundu. "Mahaixa jaso ondoren bestelako itxuria dauka". Hartu. "Azkenian jaso dau kartia". Zuzena, itxura onekoa, osasuntsua. "Zuen aitta zaharra jasua dabill ondiok".

eskutitzak

- OHARRA -

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxienezko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingaririk

onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA



ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkarte. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
TELEFONORAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkartaren E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
PUBUZITATERA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez
BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679
("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

kutxa gizarte ekintza



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria

250.000 euro asfaltauak konpontzeko

Herriko zazpi tokittan asfaltauak konpontzeko biharretan 250.000 euro gastauko dittu Udalak eta obria laster lizitaziñora etarako dabela emon dabe aditzera. Obra Saillak egin daben azterketaren arabera, gure herrixan konpontzeko premiñan duguaz tokixak asfaltatzeko-eta 450.000 euroko inbersiñua bihar da, baiña aurtengo aurrekontuan hórretek egitteko 200.000 euroko partidia

baiño ez dago eta, horregaittik, oin toki batzuk konponduko dittue eta gaiñontzekuak datorren urterako lagatzia erabagi dabe. Aurten konponduko dittuenak hónek dira: Tiburtzio Anituatik Otaola hiribideraiñoko tartia, Ubitxa kaliaren ostia, Jardíñeta (10. zenbakittik 12.era doian tartia), San Juan (9tik 11ra), Errebal, Bittor Sarasketa (12tik 14ra) eta Barrena (8tik 38ra).



Herriko zazpi tokittan egingo dittue asfaltauak.



Merkadillua Errebalera eruan dabe

Aste honetatik hasitta, aurrerantzian eguaztenero Errebalen ipiñiko dabe oiñ arte Eibarko Txikiton ipintzen zan asteroko azokia. Hasieran iragarritta eguana baiño astebete geruago egin dabe toki aldaketia, aurreko eguazteneko jaixak eraginda.

Arnasketia lantzeko klasiak



Rosana Arana masajistia.

Pagatxa andra alkartekuak antolatuta, norberak zuzendutako arnasketa konzientia lantzeko ikastarua dago martxan urtarrillaz geroztik. Rosana Arana masajistia Andretxean (Zezenbiden) emoten dittuan klasiak maiatzaren 29xan amaittuko dira, baiña bertan lantzen dabena bertatik bertara ezagutu nahi dabena horretarako aukeria daka, eguaztenetan bertara gerturatuta (16.30xetatik 18.00etara edo 19.00etatik 20.30xetara). Izan be, datorren ikasturtian atzera be ikastarua antolatzeko asmua dake.

San Andres eskolaren 50. urtemuga

Datorren ikasturtian San Andres herri ikastetxia sortu zala 50 urte beteko dira eta hori ospatzeko antolatuko dittuenetarako laguntasuna eskatu dabe ikastetxeko zuzendaritzako kiñiak. Eskoliarekin hartu-emonen bat euki dabeneri (ikasle-ohi, irakasle, famelixak...) internet bidez eurekin kontaktuan ipintzia nahi dabe, holan ospakizunetarako ideiak, iritziak, argazkiak, bideuak eta bestelako materixala batzen juateko. Horretarako sanandres50urte@gmail.com helbidera idatzi leike edo, bestela, Twitterreko euren kontua (@sanandreseskola) erabilli, #sanandreseskola50 etiketarekin.



BERNAR CENDOYA ZUBIMENDI

*Bizitzari eta heriotzari, aurrez aurre begiratu zenien
Duintasuna oparitzen den gauza ez denez, Zutaz harro gaude.
Etxeñoak*

Egun hauetan zuen babesa eskaini diguzuenori, gure esker ona adierazi nahi dizuegu



Banatu dittue Toribio Etxebarria Sarixak

Eguaztenian banatu zittuen Coliseuan 23. Toribio Etxebarria Sarixak. Enpresa Barrixak atalian, Donostiako Enigmedia, informaziño-teknologixia, elektronika eta ikus-entzunezkuen ikerketagarapenerako enpresiak eruan dau sarixa. Sari teknologikua, barriz, Eibarko ATEN2 sektore eolikorako on-line sensorien garapen-merkaturatzerako enpresarendako izan da. Enpresa Asmuen atalian sarixa Donostiko Bihurcrystal ikerketarako eta azalera zientzietarako kristal kurbauen diseñu, fabrikaziño eta salmentaren gaiñeko proiektuak eskuratu dau. Atal bereko sari teknologikua Natural Grip-ek etara dau, kortxo partikulaz osatutako produktu ez labankor eta itsaskorren inguruko proiektuari esker. Aurten "2012ko Ekimen Enpresarial Eibartar nabarmenari aitopena" dalakua gehittu detse aurretik emoten zittuen sarixeri eta errekonozimendua JAZ-Zubiaurre enpresiarendako izatia erabagi dabe, "Zubiaurre famelixak ekintzailtza eta barrikuntzaren inguruan egindako ahalegiñ irmoa saritzeko". JAZ-Zubiaurrek Toribio Etxebarria Sarixen 2003ko ediziñuan sari nagusixa jaso eban enpresen atalian.



Enpresa Asmuen atalian sarixa Donostiko Bihurcrystal ikerketarako eta azalera zientzietarako kristal kurbauen diseñu, fabrikaziño eta salmentaren gaiñeko proiektuak eskuratu dau. Atal bereko sari teknologikua Natural Grip-ek etara dau, kortxo partikulaz osatutako produktu ez labankor eta itsaskorren inguruko proiektuari esker. Aurten "2012ko Ekimen Enpresarial Eibartar nabarmenari aitopena" dalakua gehittu detse aurretik emoten zittuen sarixeri eta errekonozimendua JAZ-Zubiaurre enpresiarendako izatia erabagi dabe, "Zubiaurre famelixak ekintzailtza eta barrikuntzaren inguruan egindako ahalegiñ irmoa saritzeko". JAZ-Zubiaurrek Toribio Etxebarria Sarixen 2003ko ediziñuan sari nagusixa jaso eban enpresen atalian.

Formula Hit Eibar, Happy Fm taldian

Aurreko astetik Fórmula Hit Eibar irratixa El Mundo-ren Happy FM musika emisoren taldearen barruan dago. Eibarko irratiko arduradunak azaldu dabenez, taldearen sartzia ez dau eragirik eukiko oiñ arteko programaziñuan eta, betiko moduan, Eibarri eskindutako tartieri eusti egingo detse. Holan, bestiak beste Eibar foball taldearen partiduak 100.8 FM-ian eta interneten www.happyfmeibar.tk edo www.happyeibar.tk helbidietan entzuteko aukeria eskinduko dabe (edozelan be, www.hiteibar.tk domeinuak hillebete batzuetan martxan segiduko dau).



tsei egingo detse. Holan, bestiak beste Eibar foball taldearen partiduak 100.8 FM-ian eta interneten www.happyfmeibar.tk edo www.happyeibar.tk helbidietan entzuteko aukeria eskinduko dabe (edozelan be, www.hiteibar.tk domeinuak hillebete batzuetan martxan segiduko dau).

autuan

UDALAREN DIRU-LAGUNTZAK

Udalak diruz lagunduko detse baliabide ekonomiko urriak dittuen langabetu eta pensionisteri, 150 euroko diru-laguntzia emonda. Eskaeriak egitteko bete biharrekuen artian, bestiak beste, kotizaziñopeko edo kotizaziño bariko pensiañua jasotzia, diru-sarrerak bermatzeko errenta baten titularrak izatia eta Eibarren erroldatuta egotia dagoz. Informaziño gehixagorako edo eskaeriak aurkezteko Pegorara juañ bihar da.

LANGABETUENDAKO

Eraikuntzan jardun eta bihar barik daguazeneri lana topatzia erraztiarren, Debegesak birgaitze jasangarrixaren gaiñeko ikastarua antolatu dau: 205 orduko ikastarua maiatzaren 20xan hasi eta iraillian amaittuko da eta klasiak Debegesaren egoitzan emongo dittue. Izen-emotia (hillaren 13a baiño lehen) Lanbideren bittartez (www.lanbide.net) egin bihar da.

Funeuskadi Eibar

SERVICIOS FUNERARIOS

Beilatokia Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

Bulegoa:
Bidebarrieta, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 82 15 39 · www.funeuskadi.com

GRUPO Funeuskadi
El primer grupo funerario de Euskadi

· Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Galdakao · Sodupe · Espinosa de los Monteros ·

ISO 9001
BUREAU VERITAS
Certification
Fi. Teatrotiles y Crematorios

info@gerritek.net
www.gerritek.net

SOLUZIO INFORMATIKOAK:

- Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta
- Neurrira egindako software-aren garapena

Leading Innovation >>>

Gerritek
INFORMATIKA

Txaltxa-Zelai, 4-6
Tel: 943-033892 / Faxe: 943-031521

Galiziako jaixak asteburua beteko dabe

Aurten 30. ediziñua beteko daben Dia Das Letras Galegas jaixak gaur arratsaldian hasiko dira, 19.00etan Urkizuko parkian As Burgas Galiziako Etxeak txosnia zabaltziarekin batera. Hortik aurrera eta domeka illuntzera arte Galiziako produkto tipikuak eta bertako musikiak eta dantzak beteko dabe Urkizu aldia, beste talde batzuren parte-hartzia izango daben jarduerekin batera. Gaur arratsaldian herri-kirolak

eskinduko dittue eta gabian, 22.00etan hasiko da Super Fama taldiak girotuko daben berbenia. Bixarko egitaraua goizetik hasiko da: 11.00etan umiendako "chaves" jaurtiketia egingo dabe, 12.30xetan igel-toka, jarraixan piskolabisa eta arratsaldian atzera be jokuendako tartia izango da, helduendako "chaves" jaurtiketia jokatu dabe-eta. Ondoren Galiziako dantzak eta musikia eskinduko dittue Ei-

barko Galiziako Etxeko Os Galicos taldekuak eta illuntzegabeko dantzaldixa Trebol taldiak girotuko dau. Domekarako programia hauxe da: 11.45etan Eibarko trikilarixeri Untzagan ongi-etorrixa egiñ eta Urkizuraiño kalejiran juango dira. 12.30xetan parkian Kezka eta Aire Andaluz dantza taldiak saiua eskinduko dabe. Castelaoren oroigarri-xan lorak ipiñi eta gero, 15.00etan Galiziako Etxian



bazkalduko dabe eta 18.30xetatik aurrera Trebol taldiak eskinduko daben dantzaldixarekin agurtuko dittue jaixak.

Eguaztenian San Isidro ospatuko dabe Arraten

Datorren asteko eguaztena San Isidro eguna izango da eta, urteroko lez, Eibar eta inguruko basarritarak Arraten alkartuko dira, euren patroia eguna jai giruan emoteko. 11.00etan bertsolarixak eta trikilarixak lagunduko daben mezia ospatuta ekingo detse egunari. Mezia eta gero, prozesiñua egingo dabe eta, hori amaituta, Kezka dantza taldekuak aureskua eskinduko dabe. Jarraixan hainbat produkturen dastaketia egitteko aukeria eukiko dabe nahi dabenak: bestiak beste Sagamiña Getariko txakoliña, gaztaiak (Andutzene, Mausitxa, Sosola eta Goienetxe) eta aire librian hazittako basatxarri ezaugarrixa daken txarrikixak probatzeko aukeria egongo da. Eguardi partian, 12.30xak aldera San Isidruetako XI. Aizkolari txapelketia jokatzan hasi-

ko dira Nazabal, Larretxea, Bihurri, Agite, Zubizarreta eta Atutxa aizkolarixak eta, tartekatuta, Izeta II.a, Ostolaza eta Urrutia harrijaso-tzailliak saiua egingo dabe. Basarritarrendako bazkarixa 14.00xetan hasiko da, Kantabria jatetxian. Eta Deba Beheko Landa Garapen Elkarteak, Debemen-ek, Kantabria jatetxiak eta Debabarreneko udalek lagunduta antolatutako programia agurtzeko, 17.30xetatik aurrera idi-probak jokatu dabe.



Santa Kurutzeko jaixak giro paregabian

Aurreko asteburuan geratu barik ibilli ziran Santa Kurutzen, auzoko jaixak ospatzen. Barixakuan Beñat Gaztelumendi eta Julio Soto bertsolarixekin afarixa egiñ eben Ixuan. Zapatuan mezia entzun eta hamaiketakua egin eta gero, umiendako jolasak eta auzoko asto-probak ailegau ziran; azken hórretan Agarraspi basarriko Pepi astua izan zan txapelduna eta bigarren onena, barriz, Gisasola basarriko Rubia. Eta domekan jaixak agurtu baiño lehen, mezia amaituta Kezka dantza taldekuen eskutik soka-dantzia ospatu eben ermita parian eta, jai-xen azken txanpan sartuta, umiendako jolasak eta auzoko gaztien arteko herri kirolak jokatu zittuen. Ekitaldi guztietan jende morduak hartu eban parte.



ANA MARI TELLERIA AGIRREZABALAGA

(Peio Eizagaetxeberria "Okelerre"ren alarguna)

–2013ko apirilaren 28an hil zen–

FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK
BEROENA gure nahigabean
lagundu diguzuen guztioi.



Jose Antonio Artzeren
berbak gogora ekarrirta,
hizkuntza bat ez ei da
galtzen ez dakixenak
ikasten ez dabelako,
dakixenak berba egitten ez
dabelako baiño. Esaldixak
diñuana egixa izanda be,
hizkuntza bat galdu ala ez
galdu baldintzatzen daben
faktoriak asko dira, aste
honetan egin dan
Euskararen Transmisiñuari
Buruzko Mintegixan
hizlarixak garbi laga eben
moduan. ...eta kitto!
Euskara Elkartek
antolatutako topaketan
hirugarrenez heldu detse
hizkuntzaren
transmisiñuaren gaixari
eta, horren gaiñian
esateko geratzen diran
guztiak ikusitta, laugarren
batendako atia zabalik
lagata agurtu eben
martitzeneko saiua.



TRANSMISIÑUA, GERUA BERMATZEKO GILTZA

Nেকে ikusiko dittugu atzera be Pablo Suberbiola soziologua, Jean Baptiste Coyos linguistikan doktorea eta euskaltzaiña, Izaro Susperregi Urtintxa eskolako soziolinguistika arloko koordinatzaillia, Iñaki Pikabea psikologo-pedagogua, Paula Kasares soziolinguista eta irakaslia, Idoia Etxeberria Ahotsak Ikasgelan proiektuaren arduraduna eta Asier Sarasua Badihardugu Eus-

kara Elkarteko presidentia dakan alkarrekin eta mahai beraren inguruan jarritta eta Kike Amonarriz eurak esandakuak zorrotzen, martitzenian Portalean egun osuan egindako mintegixan ikusi genduan lez.

Erabilleria ikaslien artian

Lehelengo hitzaldixa **Pablo Suberbiola** soziolinguistika klusterrak emon eban, Arrue ikerketaren emaitza nagusixak

azaltzeko. Hizkuntzaren transmisiñorako mekanismuetako bat eskolia da eta hortik horren inguruan egindako azterketiak dakan garrantzixa. Ikasliak euskeria zelan erabiltzen daben aztertzeko adin tarte bi aukeratu zittuen, 9-10 urte bittartekuak batetik eta 13 urte inguruak bestetik. Suberbiolak esandakuari jarraituta, "klase barruan ikasliak beste ikaskidiekin berba egittian euskeria zenbat era-

biltzen daben neurtuta, argi ikusten da txikixak pixka bat nagusixaguak diran ikasliak baiño askoz gehixago erabiltzen dabela. Edozelan be, jolaslekura urtetzian joera horri eusten detsen arren, gaztelerak gero eta tarte haundixagua hartzen dau kasu guztietan eta gelaz kanpoko harremanetan ez da aldaketarik ikusten, zenbat eta helduago orduan eta euskeria gitxiago erabiltzeko joerari jarraitzen detse".

Nahiko begibistakuak izan leikiazen ondorixo nagusixak hórretxek izanda, eskolako erabilleriari lotutako aldagai nagusixen zerrenda luzian, bestiak beste, etxian erabiltzen dan hizkuntza, euskeria gustokua daken ala ez, euskeraz egitteko daken erreztasuna, aisialdixa, herrixaren euskalduntze mailla, mailla ekonomikua, irakaslien erabilleria eta gurasuen jatorrixa dagoz. Eta aittatutakuen artian "aparteko garrantzixa" daka antolatutako aisialdixak, Suberbiolak esandakuaren arabera: "Bederatzi edo hamar urterekin eskoliak eremu 'babestua' sortu



Transmisiñuaren gaixak interes haundixa sortzen dau euskeriaren inguruan diharduenen artian. SILBIA H.

leike, baiña helduaguak diranian ikasliak gizartiarri egokitzen doiaz inguruan dakena imitautu". Horregaittik, euskalduntze prozesuan eskoliak garrantziza dakala aitortuta be, bere mugak badi-ttuala onartu bihar dogula pentsatzen dau: "Eskoliak ondo betetzen daben funziñua zelan hobetu leikian pentsatzen baiño, gure arreta kontrapisu barririk sortzen ipiñi biharko genduke".

Urtxintxa eskolako **Izaro Susperregik** "Haurrak nola, gurasuak hala? Ideietatik aplikaziñora" izenburuari jarraituta egiñ eban berba jarraixan: "Agenda21-eko kontuak eskolatik etxera eruatzen dittuen moduan, umiak hizkuntza kontuak be etxera eruatia lortu biharko genduke, etxekue-ri eragitteko". Izan be, eta Paula Kasaresek aurreko mintegixan esandakuari helduta, haurrak eragille bihurtu bihar dirala pentsatzen dau Susperregik. Umiak zerekin emozionatzen diran topatzia garrantzitsua dala uste dau, holan aisialdi eta euskeria-aren arteko lotura positibua lortu ahal izateko, beti be erabilleria-ren mesedetan.

Gurasuekin biharrian

Iñaki Pikabeak Buruntzaldeko esperientzia baten barri emon eban bere hitzaldixan, gurasue-



Entzuliak adi jarraitu zittuen hizlarixak esandakuak, gerorako galderak preparatzen juateko. KOLDO M.

kin egindako tallar baten inguruak kontautu. Izan be, "Emozioen eta euskararen transmisioa familietan: etxean zer ikusi, hura ikasi" izenburuko tallarra antolatu ebenian gurasoengandik umienganako transmisioñua moduren batian bermatzia biltzen eben, baiña izena emon ebenak eta eurak tallarra antolatzian buruan zeken perfillak zerikusi gitxi zekela ikusi eben hasieratik. Edozelan be, aurrera egittia erabagi eta emaitza "altxorra" dan liburua, Xabier Elortza eta Alex Mungiaren gurasuendako gida izan zan. "Gurasoentzako liburuska. Etxean zer ikusi, hura ikasi. Zeuk duzu giltza" liburua irakortzia biziki gomendatu eban Pikabeak (www.buruntzaldea.org -en eskuragarri dago pdf formatuan).

Gida-libururako materixala sortziaz ez eze, beste aplikaziño bat topau zetsen tallarrari, gaiñera: "Alkoholiko Anonimuen saiuetako ereduari jarraitu gentsan. Izan be, bakotxaren kezkek bestieri kontautu eta barrenak lasaituta indarberritze modukua gertatzen da".

Jean Baptiste Coyosek euskeriak Iparraldian bizi daben egoeriaz jardun eban, ebidentzia batetik abiatuta: "Transmisioña biharrezkua da, transmititzen ez dana desagertzen dalako. UNESCOren txostenak 9 eragilleri erreparatzen detse desagertzeko arriskuan daguazten hizkuntzez jardutian eta transmisioña lehen postuan dago". Belaunaldixen arteko transmisioñuak ez eze, adinkidekuen artekuren garrantziza azpimarratu

eban Coyosek eta, horrekin batera, famelixa-transmisioñuari lehenetasuna emoteko premiñaz egiñ eban berba, "famelixa transmisioña hizkuntza-politikarrik merkieta eta eraginkorra" izan dala gaiñeratuta. Pentsatzen dabenez, oiñ arte oztopo guztien gaiñetik euskeriak Iparraldian irautia lortu dau, "baldintza soziopolitikuen eragiñez, baiña baldintza hórrek, gizarte tradizionala lez desagertu dira. Belaunaldi gaztiak euskeria gehixago transmititzen badabe be, euren hizkuntza mailla apalak mugatu egitten dittuala azaldu eban. Hortik aparte, emondako datuak ez dira iñor animatzeko modukuak: 1915ian %40k euskeria emoten zetsen haurre-ri eta 1975ian %25k".

Nafarroan euskaldun hazi

Eta Iparraldetik Nafarroariño-ko saltuan, **Paula Kasaresek** Nafarroan euskaldun haztia zer dan azaltzeko bere ikerketaren nundik norakuak azaldu zittuan. "Abiapuntua 1970. urtetik, hau da, oin guraso diranak jaixo ziranetik 2012ra bittartian, Nafarroako euskeriaren jarraipena zelakua izan dan galderiari erantzuna topatzia izan da". Ikerketarako aukeratutako ikermoldia normalian holakuetan askoz urri-gua izan dan antropologikua izan zan eta horretarako belau-naldi bi, 1970xan sortutakuak eta euren umiak hartu zittuan eredutzat, toki bittan: Baztanen (Iruritan) eta Iruñean.

Ikerketia doktore-tesirako oiñarria be izan da eta gaixa oso sakonian landu dau Kasaresek. Eta biharrian jardun daben bittartian, transmisioña aztertze-



Hizlari guztiak batu zittuan mahainguruak agurtu eban mintegixa. KOLDO MITXELENA

BIDAIA PERTSONALIZATUAK

Gure gidariekin Prezio lehiakorrek

Gure produktu berezienak: Venezuela, Costa Rica eta India

Azken aldian: Estatu Batuak, Kubarekin nahastuta

Matienan gaude **94 465 75 77**

Eibartik 10 minutura (autopistan Abadiñoiko irteera) **www.bagoaz.com**

Radio Eibar

CADENA

SER

104,0 FM

Izadi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29



Jean Baptiste Coyos euskaltzaiña.



Izaro Susperregi (Urtxintxa).



Pablo Suberbiola soziologua.

moduen gaiñeko ajeak be agertu jakozela esan eban: "Batzuk aittatzarren, transmiñio naturala (famelixa barrukua) eta eskolakua alkarrengandik bereizi izan dira eta, horrekin batera, gurasoen hizkuntza gaitasunari larregizko garrantzixa emon jakola pentsatzen dot. Izan be, euskeriak Euskal Herrixan irauñ badau ez da izan guraso euskaldun petuak beti ume euskaldunak hazi dittuelako, eta horren adibidiak badakaguz".

Errepikatzeko modukua

Eta azken hitzaldixan Ahotsak Ikasgelan ikus-entzunezko proiektua azaldu eben **Idoia Etxeberria** arduradunak eta **Asier Sarasua** Badiharduguko presidentiak. Ahozko lekukotasunak jaso eta hórretxek danen eskura ipintzeko helburu orokorraren bidia-ri jarraituta, proiektu honekin ikastetxietara saltua emon dabe Ahotsak-ekuak, bideuak eta bes-talakuak erabillitta umiak gure nagusixen barri jaso deixen.

Proiektua probatzen jardun dabe, hedatzen juateko asmua-rekin eta honezkero berari eskindutako webgunia be ipiñi dabe martxan (ikas-gelan.ahotsak.com).

... eta kitto!-ko normaliaziño arloko Aina-ri Labadok eginda-ko baloraziñua atzera be oso positibua izan da: "Parte hartzaille kopuruari eutsi detsagu. Halanda be, aurtentaldia heterogeneo-agoa izan da. Egunian bertan entzulien parte-hartzia oso al-tua izan ez bazan be, baloraziño-orrixa betetzeko orduan agertu daben intere-za izugarrixa da. Gauza konkretuetan hobetzeko proposa-menak egin dittue, gaixaren gai-



Paula Kasares soziolinguista.



Iñaki Pikabea psikologo-pedagogua.

ñian ideiak, hizlarixak... proposa-tu deskuez. Interes haundixa da-go gaixaren gaiñian eta ez dakagu ez lan makala aurretik".



Idoia Etxeberria eta Asier Sarasua Ahotsak ikasgelan proiektua presentau eben.

AUTOBUS
zerBITZUA
maiatzak
26
Irteera:
09.30etan
Buelta:
19.30etan
9 eurotan

ibilaldia
Aldapa Leunduz
portugalete 2013

J.A. MOGEL IKASTOLAKO
GURASOEN ELKARTEA

...ETA KITTO!
EUSKARA ELKARTEA

ARRATE
Kultur Elkartea
www.maitearriaga.com
Tel. 622053933
maitearriaga@terra.es

HELDUENTZAKO PINTURA IKASTAROA
Martitzen eta eguenetan: 16.30-18.30 edo 19.00-21.00
Prezioa hilerro: astean behin (20,50€) edo bitan (38€)

GIZA-FIGURAREN MARRAZKETA (modelo biziduna) IKASTAROA
Astelehenetan: 19.00-21.00. Eguenetan: 09.30-11.30.
Prezioa hilerro: astean behin (30€) edo bitan (35€)

PLAZAK ZABALIK URTE GUZTIAN

Aire berriak!
Estaziño, 4
943 254776

Khôl Estilistak

ANTONIO JIMENEZ eta JESUS ARIZONA

"Nagusilanen gehiago jasotzen dugu ematen duguna baino"

1995ean inauguratu zuten Nagusilanen egoitza gure herrian eta Antonio Jimenez sortzaileetakoa izan zen, Roberto Etxaburrekin batera. Handik urte bira hasi zen elkartearen laguntzen Jesus Arizona eta biak dira gaur egun gure herrian Nagusilaneako arduradunak. Hogei bat lagunek osatzen dute laguntza ematen duen talde hau gure herrian eta urtero 6.000 bat ordu eskaintzen diete euren beharra dutenei. Bolondres lan hori egiteko jende gehiago behar dutela diote: **interesatuak 943-820087 telefono zenbakira deitu dezakete.**



Gaur egun 23 lagunek osatzen dute gure herriko Nagusilanean diharduen lantaldea. "Euretatik lau bajan daude". Hemeretzi laguneko taldea, beraz; jubilatuek osatutakoa. Ala ez? Baietz dioskue Antonio Jimenez elkarteko presidentek eta Jesus Arizona idazkariak: "Badira, dena dela, etxekoandre bat eta baita gure artean hiru hilabete daraman El Salvadorreko etorkina, eibartar batekin ezkonduakoa. Emakume horrek, gainera, gogo handiz hartu du zeregina". Bolondres talde horretan denek daramate lau-bost urtetik gora eta badakite ondo zer eman

behar duten eta baita zer jasotzen duten ordainez: "Egia da bokazioa ere behar duzula, baina hutsik sartu eta beteta irtetzen zara hemendik", dioskue bolondres biek aldi berean. Lo lasai egiten dutela diote: "Kontzientzia garbi dugu". Hala ere, jende gehiagoren premian aurkitzen dira, bolondres lana ez baitago modan azken aldia.

Ordu bi besterik ez astean

Zahartzeko modu aktibotzat jotzen dute Nagusilanen egiten dutena. Euren aktibitateen artean daude gure herriko zahar-etxeetako eta Garaguneko jendearekin paseatu, en-

tzun, animoak eman, seniderik eta diru larregirik ez dutenei sendagilearengana lagundu... Beharrezkoak diren hainbat zeregin.

85 urteko gizona dute taldean, "ikaragarriko bizitasuna duena". Berarekin batera, 60tik 80 urtera arteko 9 emakumezko eta 8 gizonzko; eta 50etik 60ra arteko beste hiru emakume eta lau gizon. Hor ez dago alderik, beraz: emakumeek zein gizonzkoek portzentaia berean ateratzen dute tartea besteei laguntzeko. "Ez du inolako zailtasunik: eskatzen dugun bakarra aste-oro bi ordu izatea besteei laguntzeko". Askok aspertzen direla diotenean, hemen dute aukera euren burua beste aktibitate batekin osatzeko eta, bide batez, euren beharra dutenei laguntzeko. "Nori lagundu eta halakoak egoitzetako arduradunek erabakitzen dute. Eta, gurekin batera, hemengo langile sozialak hartzen dituzte bolondres berriak dugun harrera-protokoloa betetzeko".

Deba, Zumaia eta Loiola

Hil honetan hasiko dira kanpora egin beharreko txangoe-

kin. "Urrira arte irauten dute irteera horiek eta Debara, Zumaia eta Loiola joaten gara. Mobilizaten ditugun lagunek atsegin handiz egiten dute, batez ere ezagunekin elkartzen direnean" diote Jimenezek eta Arizonak. Iaz 45 aldiz jo zuten kostaldera eta 290 laguni lagundu irteera horietan. "Urtarrilean ere beste bost irteera egin genituen, Elgoibarko jaiotza ikustera".

Eibarko Nagusilaneako probintzian hilero ordu gehien sartzen dituzten artean daude, 500etik gora. Horregatik, "zenbat eta bolondres gehiago izan, orduan eta erosoago antolatzeko aukera izango dugu eta baita irteera gehiago egiteko ere". Erantzun zibileko aseguru eta partikularra dute, "edozer gertatuta ere. Bolondres lan honek elkartek ematen duen segurtasuna behar duelako". Nagusilan elkartearen federazioa da, hemen sortuta ere Andaluziaraino zabaldu dena: "Nagusilan izenarekin Sevillan, Granadan edo Madrilan ere bagaude". Bitartean, Antoniok bingoa kantatzen du barixakuero San Andres egoitzan eta Jesusek koroa osatu du Ego-Gainen.



Eibarko Nagusilanen diharduten bolondresen talde bat.

Armeria Eskolakoak Bulgarian

Armeria Eskolan "Automatizazio eta Robotika Industrialak" zikloa ingelesez ikasten dihardutenek astebete eman dute Bulgarian, irakasleekin batera, MOVE proiektuaren tesuinguruan antolatutako bidaian. Zortzi ikasle eta hiru irakasle osatutako taldea Bulgariako Smolyan herrian egon da apirilaren 21etik 26ra bitartean eta, handik bueltan azaldu dutenez, *"MOVE proiektuarekin zerkusia duten ekintzak garatzeaz gain, Bulgariako errealitatea bertatik bertara ezagutzeko eta proiektuko beste partaideen arteko harremanak sendotzeko baliagarria izan da bidaia"*. Aipatutako proiektuan Bulgaria eta Euskal Herriko ikastetxeekin batera Turkia eta Poloniako ikastetxe eta enpresek ere parte hartzen dute.

Ikasleek esperientzia positibotzat jo dute, besteak beste elkar hobeto ezagutzeko eta ikasitako ingeleza praktikan ipintzeko auke-

ra ere izan dutelako. Proiektu berberaren barruan datorren ikasturtean beste bi bidaia egitea aurreikusten dute arduradunek: horietako batean Eibarrera, Armeria Eskolara bisitan etorriko dira kanpoko partaideak eta beste bidaia, berriz, Turkiara, Capadocian dagoen Kaisery hirira egingo dute.

Ateak urte guztian zabalik

Bestalde, Armeria Eskolako hezkuntza eskaintzari buruzko informazioa nahi duenak, tailerrak ezagutzeko, irakasleekin berba egiteko edo beste edozertarako, ikastetxera bisitan joateko aukera badagoela adierazi dute, "aurten Armeria Eskolan Ate Irekien Jardunaldiak egunero izango direlako". Hala ere, beti ere aurretik hitzordua eskatzea hobe dela diote. Horretarako eskolako idazkaritzara deitu (943203244) edo secretario@armeriaeskola.com helbidera idatzi daiteke.



Itzioko ikasleak Frantzian

Apirilaren 28tik 30era bitartean Itzio BHI-ko frantses ikasleak Futuroscope eta Poitiers bisitatu zituzten, urteroko moduan frantsesa pixka bat praktikatzeko asmoz. Horrekin batera, Maite Amiama eta Marian Bernaola irakasleek esan digutenez, *"bidaian oso ondo pasatu zuten Frantziako kultura, geografia eta bestelakoak ezagutzen zituzten bitartean"*.

Gazteen lokalak arautze bidean

Udalak gazteen aisialdirako lokalak arautuko dituen ordenantza berria izango du laster. Behin-behineko dokumentuak bete beharreko gutxiengo baldintza batzuk jasotzen ditu eta www.eibar.net Udalaren webgunean, Pegoran, Hirigintza Sailean eta Indianokua gaztelekuan eskuragarri dago. Prozesua otsailean zabaldu zen eta ekarpenak egiteko sasoia ixtear dago eta hilabete honetan egingo da hasierako onarpena. Ordenantza indarrean sartzean lokal guztiek bete beharko dute eta lokalak erregularizatzeko (aurkeztu beharreko agiriak entregatzeko) urtebeteko epea emango dute.



ENRIQUE BOLUMBURU GARATE "KETO"

I. URTEURRENA (2012-V-13)

Bere aldeko MEZA ospatuko da maiatzaren 13an (astelzehena), arratsaldetako 19.00etan, San Andrés parrokian.



+ OSASUN GAZTA

Dentistak

- odontologia biologikoa eta orokorra
- terapia neurala
- osteopatia

miren albistegi sojo
HELVIDE ETA TELEFONO BERRIAK
Errebal, 14
t. 943 201 721

T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57

AMAÑA
HORTZ KLINIKA

ARAT Hortz Klinika
ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

FORBIO ETXEBARRIA, 4 - Esk. Tel: 943 20 18 51

R.P.S. 148/12

bista eder
clínica dental - hortz klinika

Irribarreak gaztetu egiten gaitu

Inplante eta Hortz-Estetikan adituak

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75

Monica Martín Fonseca
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

calbetón hagin klinika

Tel. / Faxes: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

GASTESI
Hortz-Klinika
Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia
Inplanteak / Laser Teknologia / PADI

Bidebarrieta, 10-2. eskua 943 70 00 90

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

hartz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

Mª Dolores Olaizola Doktorea

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkiizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

RPS 336/05

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

UNTZAGA
hortz-klinika

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Inplanteak

Untzaga, 2 - 1. Eskua
Tfnoa. 943 70 25 92

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA


Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapia



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.
ARRAQUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA



FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zkia.
OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA
S. Agustin, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58

Okulistak



Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartera
943 20 19 82

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikia

- Miopia ebakuntzak femtosekundoko laserrarekin.
- Katarata ebakuntzak lente multifokalarekin.
- Presbiziaren kirurgia.

Plaza Barria 2. 2º.
Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiroprodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak



ELENA AIZPUN
PODOLOGOAK
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746

PODOLOGOAK
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOAK

Maidier Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak



AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOAK
ETA OSASUN ZENTROAK

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buloia
Tel. 675 706 807

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOAK
G201987 kolegiatua

- Masterra Praktika Klinikoa
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ez. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea
Telf. 943 206823 eta 686 859023

Radiologia

MADINA
RADIOLOGIA

- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin

Toribio Etxebarria, 4 - 1. ez. 943-202857

Hemen zure tokia izan nahi baduzu:
deitu 943-206776 telefono zenbakira



Portalean erakusketa zabaldu duten hiru argazkilariak. LEIRE ITURBE

Argazki erakusketak herriko areto guztietan

Aurreko asteko barixakuan inauguratutako erakusketekin Klub Deportiboko argazki taldekoen Argazkilaritza Maiatzean programan bete-betean sartu gara. Inaugurazio ekitaldian Javier Fernández Ferreras, Bosco Mercadal eta Juan Armentia argazkilariak egon ziren eta Portaleko areto erakusketa zabaldu eta jarraian Topalekura joan ziren, hangoa inauguratzera. Hil honetan herriko erakusketa areto guztietan argazkiak izango dira protagonista. Maiatzaren 31ra arte "32. Argizaiola Lehiaketa" Klub Deportiboan (tabernan) ikusteko moduan egongo da eta

Deportiboko Argazkilaritza Taldekoen lanak El Ambigú eta Portalea tabernetan eta Untzagako jubilatutako etxean ipini dituzte ikusgai. Hilaren 26ra bitartean Portalean Javier Fernández Ferreras, Juan Armentia eta Bosco Mercadal argazkilarien lanak eta Topalekuan "40. Nazioarteko Gipuzkoa Saria" egongo dira ikusgai. Bestalde, maiatzeko antolatutako egitarauari jarraituta bihar bidaia-argazkilaritzaren inguruko tailerra emango du Tino Soriano eta datorren eguenean 19.30etan "Al son del punk-kuidado ke muerden" liburua aurkeztuko dute Portalean.

Ipurterreko irabazleei sariak ematea

Aurten Ipurterre lehiaketa irabazi dutenek datorren astean, eguaztenean jasoko dute saria, 10.00-etan Hezkuntza Esparruko aretoan hasiko den ekitaldian. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako lehiaketako irabazleei sariak banatzeaz gain, Madiber magoaren ikuskizunarekin ederto pasatzeko aukera izango dute ekitaldira gerturatutako guztiek.



Badator 48. Euskal Jaia

Euskal Jaiaren 48. edizioa gerturutzen doa, azken urteotan lez maiatzaren azken asteburuan ospatuko da-eta. Klub Deportiboak eta Kezka Dantza Taldeak herriko hainbat elkarteren laguntzarekin antolatutako programan bada azpimarratu beharreko berrietasun nabarmen bat. Izan ere, eta urteroko formatuari eutsiko bazaio ere, oraingoan zapatuko kantu afariak eta domekako herri bazkariak izaera berezia izango dute, aspaldiko partez herriko 13 elkarte gastronomikok parte hartuko dutelako otorduetarako janaria prestatzen. Antolatuzaileen berbetan, "ekimen honekin, festaren izaite tradizional eta herritarren aldeko apustua egiteaz gain, prezioak merketu nahi izan ditugu, parte-hartzea jende gehienaren esku egon dadin". Untzagako karpan egingo diren afari eta bazkaria prestatzen lagunduko duten elkarte-



ak Txirixo, Gazte gogor, Ipurua, Jaiki, Karramarroak, Legarrea Gain, Umbe, Usobide, Zatiña, Ospelak, Bide Alde, Amaña eta Batuak dira. Bestalde, kantu afari eta bazkarirako txartelak Deportiboan salgai daudela gogorarazi dute (7 eurotan langabe, ikasle eta haurrentzat eta 10 eurotan beste guztientzat). Erosteke azken eguna maiatzaren 19a izango da.



Besta Berri dantza ikuskizuna

Juan Antonio Urbeltzen "Besta Berri" dantza ikuskizuna maiatzaren 18an 20.00etatik aurrera Coliseoan ikusteko aukera izango da. Emanaldia XLVIII. Euskal Jaiaren egitarauaren barruan antolatu dute eta Argia, Duguna, Maritzuli, Haritz, Gure-Kai, Xinkako, Ezpe-lur eta Kezka dantza taldeetako dantzari eta musikariak izango dira taula gainean Corpus Christiren inguruko festetan oinarritutako lana eskaintzen. Ikuskizunean dantzan jardungo duten Kez-kako kideak Irati Kortabitarte, Olaia Gabirondo, Luken Aranburu, Unai Txurruka, Egoitz Blanco, Ander Garitagoitia, Oier Araola, Maider Otaola, Enrike Izagirre, Ainhoa Larrañaga, Josu Gara-te eta Aiert Ibarbia izango dira. Sarrerak 10 euro balio du.

Ana Belen-en kontzertua gaur iluntzean

Gaur 20.30etan Ana Belen abeslari ezaguna Coliseoan izango da, "A los hombres que amé" disko berria aurkezteko emanaldia eskaintzen (sarrerak 30 euro balio du). Hamalau abestik osatzen duten lan berrian bere ibilbidean eragina izan

duen hainbati omenaldia egin die abeslariari, besteak beste Miguel Ríos, Joan Manuel Serrat, Joaquín Sabina eta Luis Eduardo Aute-ri. Honezkerok klasikoak diren kantak biltzen dituen diskoa ekoizteko arduraduna David San José izan da.



laburrak

FINALISTA EGUNA

Eibarko Klub Deportiboak "Finalista eguna" egingo du ekainaren 2an, domeka, Arrateko Tiro pitxoian. Bazkarirako txartelak salgai egongo dira maiatzaren 26ra arte Deporreko bulegoan eta tabernan (nagusiak, 15€; haurrak, 8€).



KAMISETAK MARGOTZEN

Kamisetak margotzen ikasi nahi dutenentzat maiatzean tailerra eskainiko du Iratxe Unanue artisauak. Adin mugarik ez dago (3 urtetik aurrera nahi duenak har dezake parte) eta informazio zabalagoa nahi duenak kikukoeibar.blogspot.com.es helbidera jo dezake edo, bestela 657721281 telefonora deitu.

Eskola-antzerkia bihartik aurrera


Debabarreneko Eskolarteko XXIX. Antzerki Erakusketa bihar bertan hasiko da, 17.00etatik aurrera Teatro de Fondo taldeak Coliseo-

an taularatuko duen "Un sueño de una noche de verano" lanarekin (sarrerak 6 euro balio du). Hilaren 28ra arte talde profesionalen emankizunak eskainiko dira bakarrik, oraingoan ikasleak ez direlako taula gainera igoko. Hala ere, 300 bat umek ikusiko dituzte lanak. Martitzenean La Baldufa konpainiak "Printze zorionsua" eskainiko du 15.00etan Hezkuntza Esparruan. Eta eguenean antzerkia Coliseora bueltan joango da, 20.30etan Markus&Juanmanoloren eskutik eskainiko den "Hipo y Condrías" lanarekin (sarrerak 5 euro balio du).



Wanna Funk zuzenean Koskor tabernan

Zapatu gauerditik aurrera Wanna Funk taldekoek kontzertua emango dute Koskor tabernan. Taldea Bilbon sortutakoa izan arren, taldeki de bi Eibarren bizi dira: Justin Fisher (ahotsa eta saxoa) eta Raquel González (teklatuak). Beste taldekideak Aitor Ruiz (bajua), Alex Fernández (bateria), Asier Medina (gitarra erritmikoa) eta Iñigo Garrido (gitarra solista) dira.



Udako ikastaroak prest UEUn

Aurten 41. edizioa beteko duten Udako Ikastaroetarako eskaintza prest dago: Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako ikastaroak uztailearen 1etik 24ra emango dira Eibar, Baiona eta Iruñean eta horietan izena emateko epea astelehenean, hilaren 13an zabalduko dute. Betiko martxari jarraituta, ikastaroetako gaietan orotarikoak lantzeko tarte egongo da. Ikastaro ba-koitzaren inguruko informazio guztia www.ueu.org helbidean eskuratu daiteke (matrikula ere bertan bete beharko da).



BERNAR CENDOIA ZUBIMENDI

(2013ko maiatzaren 4an hil zen, 59 urterekin)

*Atzora arte lanean,
aurrerantzean oroitzapenean,
gero arte, Bernar.
Inoiz adiorik ez.*

ROTHENBERGERREKO ZURE LANKIDEAK



Foball zaletuen Kiroljokoa saria Eibarren geratu da

Hirugarren urtea da sari hori jokatzen dena. Lehenengoan Ermura joan zen, azken bietan Eibarren geratu da. Neurketa borrokatua eskaini zuen Txoko eta Boavistaren arteko norgehiagokak eta amaierako 1-1ekoak penaltietara bideratu zuen azken erabakia. Hor eibartarrak 7-6 nagusitu ziren eta

3. Kiroljokoa bereganatu. Bihar eta etzi jokatuko dira, bestalde, Kopako final-zortzirenak, honako partiduekin: bihar, Caserio - Esmorga Akara, EzDok - Iruki, Garages Garcia.com - Tankemans eta Durango - Koskor; etzi, Txoko - Areto, Alkideba - Sporting eta Fontaenria Mujika - Azkena Kalton.



Txokok penaltietan nagusitu zitzaion Ermuko Boavistari.



Debararrenaren talde mistoa Bidasoako Itzulian

Herenegun hasi zen Bidasoako Itzulia, txirindularitza afizionatuko probarik garrantzitsuenaren Klub Deportiboko taldeak Debararena-Foot Italia izenarekin hartuko du parte. Xabier Bengoetxea, Xabier Peñagarikano, Ion Rivero, Aitor Alonso eta Jokin Bergarekin batera, Davide Martinelli (Astana profesionalen taldeko Giuseppe zuzendariaren semea) eta Damiano Cima italiarrak izango dira. Bestalde, Borja Abasolok Euskaldun Torneoaren lehen postuan jarraitzen du, Urrakiren igoeran bosgarren egin eta gero.

Eibartarrak 2. Erregionaleko Kopako garaile

Asteburuan atsedena hartu zuen gure herriko taldeak sei puntuko aldea kendu dio Soraluze B bigarrenari. Kopa torneo hori ligako lehenengo fasean erditik behera sailkatzen diren taldeen artean jokatzen da, goiko aldean sailkatutakoek igoera fasean diharduten moduan.

Eibarrek zaila du lider amaitzea

Azken jardunaldiko emaitzek (eta epaileek zeresan handia izan dute horretan: Alavesen aldeko eta Eibarren aurkako penaltiak tarteko) asko zaildu dute Eibarrek 2. B mailako bigarren multzoko liderra izatea. Jardunaldi bi falta dira liga amaitzeko eta eibartarrak partidu biak irabazi beharko dituzte eta gasteiztarrek biak galdu sailkapena irauli eta lehenengo postuan amaitzeko. Domekan Gimnastica Torrelavega hartuko du Ipuruan Garitanoren taldeak 18.00etatik aurrera eta, garaipen horrekin behintzat sailkapeneko bigarren postua segurtatuko lukete.



Historiako Hamaikako Ideala ekimena aurkeztu zuten martitzenean, klubaren 75. urteurrenari begira.



LUCIA AÑIBARRO ISASTI (2010eko maiatzaren 5ean hil zen) III. URTEURRENA

“Ez zaitugu sekula inoiz ahaztuko”

ZURE FAMILIA



Eskubaloiairen jaia ospatu zen Untzagan

Eibar eskubaloiak urteroko jaia ospatu zuen **Untzagan**, alebin mailako neska-mutikoen partiduekin eta musika saioekin. Tartean



Alebin mailako partidua jokatu ziren. LEIRE ITURBE

egindako zozketan 8.995 eta 4.241 zenbakiak izan ziren irabazle eta sariak hilaren 20a baino lehenago jaso beharko dute, horretarako eibaeskubaloia@gmail.com postara idatzita. Asteburu honetan, bestalde, Somos Eibar talde nagusiak Gipuzkoako Kopari ekingo dio Ereintzaren aurka indarrak neurtuz, gaur 20.30etan Ipuruan. Kadeteen Tekniker Eibar taldeak Leonen jokatu du, Espainiako txapelketaren barruan, Teucro, Sinfin eta Leongo Ademar taldeen aurka. Melfun Eibar infantil mailako taldea, azkenik, Gipuzkoako txapelaren bila kantxaratuko da, Elgoibar, Usurbil eta Bidasoarekin borrokan.

Debako triatloia bihar goizean

Zapatuan hasi zen triatloiko Euskal Herriko Zirkuitoa Bermeon eta Eibarko taldeko ordezkariak maila onean jardun zuten: Alejandro Altuna eta Ane Ziaran onenak izan zen beteranoen 2. mailan eta emakumezkoen 23 urtetik azpikoetan, Andino Lopez hirugarrena juniorretan eta Pello Osoro laugarrena 23 urtetik beherakoenetan. Sailkapen absolutuan, Ziaran 3.a izan zen eta Osoro 10.a. Egun berean Igor Atxak Lisboako Erdi Ironmanean hartu zuen parte eta 23. postuan amaitu.



Domekan Senpereko Triatloi olimpiakoan izan ziren Xabier Arrieta, Alberto Brabó eta Iñigo Villaba.

Bihar, bestalde, Deba-Itziar triatloia bosgarren edizioa jokatu da, goizeko 11.00etatik aurrera.

Jaunarena-Zabaleta Astelenan domekan

Frontoi guztiko buruz-buruko txapelketaren bigarren jardunaldia jokatu da asteburuan eta behetik gora datozen proiektio handiko bi gazteen arteko norgehiagoka, jardunaldiko interesgarriena beharbada, jokatu da domekan Katedralean. Aurreko domekan leku berean ikasbidea eskaini zuen Jaunarenak binakako txapelketako izar handiena izango du aurrean. Aurretik Apezetxea-Peñagarikano eta Ezkurdia-Larriaga bikoteen arteko lehia izango da ikusgai eta, amaitzeko, Ibai Zabalak eta Mendizabal III.ak neurtuko dituzte indarrak 2. mailako txapelketaren barruan.

Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua
☎ 943 12 02 00 FAX: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

- | | |
|---------------------------|--------------------------------------|
| 1 Kardiologia | 11 Barne Medikuntza |
| 2 Zirugia | 12 Radiologia |
| 3 Dermatologia | 13 Urologia |
| 4 Dietetika eta Nutrizioa | 14 Traumatologia |
| 5 Análisi Klinikoak | 15 Koloproktologia |
| 6 Ortodontzia | 16 Erizaintza |
| 7 Otorrinolaringologia | 17 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa |
| 8 Pediatria | 18 Foto-depilazio Unitatea |
| 9 Psikiatria | |
| 10 Neurologia (BERRIA) | |

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- **Tanatorioa eta Errausketa labea**
Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko traslagoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951



Iñaki Ugarteburu

Eta jaikitzen bagara?

Betidunik izan naiz Coca-Cola zalea, nahiz eta asko ez edan: badakizue “zaindu beharra dago”. Jakin badakit multinazional handia dela, eta bere helburuak lortzeko...

Baina oraingo honetan poza eman dit telebistarako egindako “Eta jaikitzen bagara?” iragarkia ikusteak. Sedentarisismoaren aurkako lau konpromiso: kontzientziatu, sustatu, gardentasunez komunikatu eta kaloriarik gabeko produktuak eskaini.

Aspalditik nago arduratuta gizarte honetan hartzen ari garen ohiturekin, eta oso garbi dut norabidea aldatu beharra dagoela. Gizakion gorputza sistema konplexu, eraginkorra eta sensiblea da, eta aukera ematen digu milioka gauza egin, sentitu, dastatzeko... baina bere mantenua behar du.

Gure gorputzaren egoeraren eragile asko daude: genetika, elikadura, bizi ohiturak, ingurugiroa, lana eta jarduera fisikoa. Genetika kenduta, ia beste guztietan eragiteko aukera zuzena dugu.

Hemendik aurrera, zer? Estatistiken arabera, okerrera goaz; EAEn, 1997tik 2007ra bitartean, 16 urtetik gorako obesitatea dutenen herritarren portzentaia %25 igo zen, helburua %20 murriztea zenean. Datuak kezagarriak dira 16 urtetik beherako artean ere: %16k obesitatea du eta %13k gainpisua.

Kanadan 25 urtetik gora daramate kanpaina koordinatuak egiten bizitza osasungarriaren alde, eta orain dela urte batzuk lortu zuten joera aldatzea. Gu, betiko moduan, berandu gabiltza.

Zerbait aldatu nahi badugu, **denon** ahalegina, elkarlana eta koordinazioa behar dira; prentsa, enpresa, hirigintza, hezkuntza, kontsumoa, osasuna, kirola... guztion lana.

Uste dut Coca-Colaren iragarkiak nire bizitzan idatzi nitzakeen artikulua guztiek baino milioi bat aldiz eragingarriagoa izango dela. Jar gaitzen, ba, martxan!

Gimnasiako taldekako Euskadiko txapela jokoan Gasteizen

Domekan hitzordu garrantzitsua izango dute Ipuruako gimnasta federatuak. Hara joango den boskoteak ekainean Valladoliden jokatuko den Espainiako txapelketarako txartela lortzeko ahaleginean jardungo dute. Bihar, bestalde, infantil eta alebin mailletakoak Gipuzkoako B txapelketan izango dira.

Aurreko asteburuan probintziako amateur txapelketa jokatu zen, emaitza bikainekin Ipuruarentzat: kadeteetan, Lorea Armendarizek hiru urrezko eskuratu zituen eta Nerea Dezak zila-



Olaia Golzarri, Ane San Martin (jubeniletan Gipuzkoako bigarrena), Nahia Bilbao eta Lorea Armendariz (Gipuzkoako txapelduna kadeteetan).

rezko eta brontzezko bana. Jubeniletan, Ane San Martin bigarrena izan zen sailkapen orokorrean eta Graxi Arregi hirugarrena.

Urrezko lau eta brontzezko bi jiu-jitsun



Kalamuako ordezkariak Mostolesen izan ziren asteburuan jiu-jitsuko V. Torneoan. Estatu osoko infantil, kadete, junior eta senior mailletako 196 judoka izan ziren parte hartzen goizeko 09.00etatik gauera arte liraun zuen jardunaldian. Eneko Loresek urrezkoa lortu zuen junior-seniorretan, Nekane Muguruzak kadeteetan eta Javi Criadok eta Iker Martinezek infantiletan; Julen Ramon kadeteetan eta Iker Gorostizaga infantiletan brontzezkoarekin konformatu behar izan zuten.

Karting-eko Diputazio Kopa Julia Agirrerentzat

Olaberriako zirkuitoa bere etxea balitz moduan ezagutzen du Mendaroko pilotoak eta hirugarren aldiz (iaz eta 2010ean ere irabazi egin zuen) jantzi du Diputazio Kopako txapela. 10 segundo kendu zizkion bigarrenari eta, horrez gain, berarentzat izan zen lasterketako itzulirik azkarrena, 1:05eko denborarekin.



Ruibalek bere esku du igoera fasea jokatzea

Aluminios Alberdiri Urretxuko kiroldegian 52-54 irabazi eta gero, sailkapeneko laugarren postuari eutsi dio Ruibal Alquiler de Vehiculos-ek liga amaitzeko azken jardunaldia geratzen denean. Hasieratik amaierarainoko neurketa parekatuan, Aitor Azurmendi (16) eta Will Po-

lanco (15) izan ziren saskiratzaile onenak. Leihoak ZAST-en aurka jokatu beharko du partidu hori Ipuruan, domekan 16.30etan hasita; eibartarrek irabazten badute, Gipuzkoako 1. mailara igotzeko kanporaketetarako txartela eskuratuko dute.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, IRATI Martin Gonzalez, munduko "cocuya" politenari, bost urte egitterakuan. Aitxixa-amamen partez.



Zorionak, EÑAUT, bixar urte bi egingo dozuz-eta. Etxekuen eta, batez be, Ekhiaren partetik.



Zorionak, bitxito NARA, martitzenian bi urte egin zenduaz-eta. Muxu pilluak ama txo eta aitaxoren partez.



Zorionak, AIMAR, atzo lau urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Domekan bost urte egin zittuan gure MANEXek. Zorionak eta muxu potolo bat!!!



Zorionak, UNAI, hillaen 4an hiru urte egin zenduazelako. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, UNAX, etzi hiru urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, PEIO, hillaen 4an zazpi urte egin zenduaz-eta. Zelako pijama festa eta merendolia! Patxo haundixak, kokodriloi!



Zorionak, LOREA, domekan bost urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat zure famelixaren partez.



Ongi etorri, IKER Artetxe Mujika, hillaen 7ttik gurekin zagoz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, DANEL, bixar sei urte egingo dozuzelako. Aner, aitxixa-amama eta osaba-izeben partez.



Zorionak, MILA, astelehenian urtiak egittiaz gain, jubilau egitten zaralako. Oin disfrutazera! Muxu bat etxekuen partez.



Zorionak, ANE eta GAIZKA, bixar bi urte egingo dozuez-eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.



hildakoak

- Bernar Zendoia Zubimendi. 59 urte. 2013-V-4.
- Araceli Gomez Olanga. 80 urte. 2013-V-5.
- Juliana Santos Bravo. 85 urte. 2013-V-6.
- Javier M^o Nazabal Zuazua. 48 urte. 2013-V-8.

jaiotakoak

- Afrika Gallastegi Bastida. 2013-III-1.
- Eñaut Ibarzabal Ugarteburu. 2013-IV-25.
- Clara Sanchez Alvarez. 2013-IV-26.
- Laura Bogni Martinez. 2013-IV-28.
- Jon Ulazia Gonzalez. 2013-V-1.
- Maddi Ajuriagerra Garcia. 2013-V-2.
- Jessica Duran Santos. 2013-V-3.
- Iker Artetxe Mujika. 2013-V-7.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

10ean: 22.30
11n: 19.45, 22.30
12an: 17.00, 20.00
13an: 20.30

"Los amantes pasajeros"

Zuzendaria: Pedro Almodovar



(2 ARETOAN)

10ean: 22.30
11n: 19.45, 22.30
12an: 17.00, 20.00
13an: 20.30

"Tierra prometida"

Zuzendaria: Gus Van Sant



(ANTZOKIAN)

10ean: 22.30
11n: 19.45, 22.30
12an: 20.00
13an: 20.30

"Objetivo: La Casa Blanca"

Zuzendaria: Andrew Stanton



(ANTZOKIAN)

12an: 17.00

"Buscando a Nemo 3D"

Zuzendaria: Antoine Fuqua



BARIXAKUA 10

BILERA

19.00. Sanjuanetarako ekitaldiak prestatzeko batzarra, Jaixak Herrixak Herrixandako-k deituta. Eibarko Bizikleta Plazan (euria eginez gero Kultur).

DIA DAS LETRAS

19.00. Tabernaren irekiera eta jaiaren hasiera. Herri-kirolak.

22.00. Berbena, Super Fama taldearekin. Urkizun.

KONTZERTUA

20.30. Ana Belen-en kontzertua: "A los hombres que amé". Sarrera: 30 euro. Coliseoan.

KONTZERTUA

00.00. Wanna Funk taldearen kontzertua. Koskor tabernan.

ZAPATUA 11

MERKATARITZA ZUZENA

10.30. Bidezko merkataritzako produktuen salmenta, Aldatzenen eskutik. Toribio Etxebarria kalean (eliza parean).

DIA DAS LETRAS

11.00. "Chaves" jautiketa (umeak).

12.30. Igel-toka.

13.00. Piskolabisa.

16.00. "Chaves" jautiketa (helduak). Galiziako dantzak eta musika, Os Galaicos taldearekin.

20.00 eta 23.00.

Dantzaldia Trebol taldearekin. Urkizun.

ANTZERKIA

17.00. "Un sueño de una noche de verano" (Teatro de Fondo). Sarrera: 6 euro. Debabarreneko Eskolarteko XXIX. Antzerki Erakusketa. Coliseoan.

KALEETAN KANTUZ

10.30. Kaleetan Kantuz-ekoen kalejira. Untzagan hasita.

DOMEKA 12

HERRI URRATS

09.30. Herri Urratsera (Senperera) autobusa (buelta 19.30etan). Ego-Gainetik.

DIA DAS LETRAS

11.45. Eibarko trikitilariet ongi-etorria (Untzagan) eta kalejira, Urkizuraino.

12.30. Kezka eta Aire Andaluz dantza taldeekin.

14.00. Lora-eskaintza Castelaoren oroigarrian.

15.00. Bazkaria (Galiziako Etxean).

18.30. Dantzaldia, Trebol taldearekin. Urkizun.

ASTELENA 13

IKASTEN

10.00. "Mirando al cielo" (astronomia). Beheko Tokian.

MARTITZENA 14

IKASTEN

10.00. "Música, periodo clasicista" hitzaldia, Marina Lertxundirekin. Armeria Eskolan.

ANTZERKIA

15.00. "Printze zorionsua" (La Baldufa). Debabarreneko Eskolarteko XXIX. Antzerki Erakusketa. Hezkuntza Esparruan.

HITZALDIA

18.30. "Nola gertatzen da azidifikazioa gorputzean eta zelako garrantzia dauka?", Vicente Tercero naturopaterekin. Portalean.

HITZALDIA

19.00. "Las psicoterapias a día de hoy", Fernando Urizar Eibarko Medikuntza Zentruko psikiatrarekin.

IRAKURKETA KLUBA

19.00. "¡Eh Petrel!" (Julio Villar). Juan San Martin Liburutegian.

ARGAZKIA MAIATZEAN

19.30. "Al son del punk-kuidado ke muerden", Josu Truebaren liburu-aurrekepena. Portalean.

EGUAZTENA 15

IPURTERRE

10.00. Ipurterre ipuin lehiaketako sari-banaketa ekitaldia. Madiber Magoaren ikuskizuna. Hezkuntza Esparruan.

IKASTEN

10.30. Kafe-tertulia: "Teknologia berriak". Untzagako jubilatuek etxean.

KONTZERTUA

18.00. Juan Bautista Gisaola Musika Eskolako kontzertua. Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

SAN ISIDRO

11.00. Meza, bertsolari eta trikitilarietekin. Prozesioa eta aureskua, Kezkarekin. Txakolin, gazta eta txerriekin dastaketa.

12.30. San Isidroetako XI. Aizkolari Txapelketa.

14.00. Bazkaria, Kantabrian.

17.30. Idi-probak. Arraten.

HITZALDIA

19.30. "Egizu kirola zentzuz", Poliklinika Gipuzkoako Enrique Perez Ayalarekin. Portalean.

BILERA

19.30. "Jun Hemendik" herri mugimenduaren bilera irekia. Eibarko Bizikleta Plazan (euria eginez gero Kultur).

EGUENA 16

IKASTEN

10.00. "La era de la conciencia", Equiliaren eskutik. Armeria Eskolan.

18.00. Joskintza tailerra. Portalean.

ODOL-ATERATZEA

18.30. Odola ateratzeko saioa, odol-emaileentzat. Anbulategian.

KALERATZEAK STOP

19.00. Kaleratzeak Stop Debabarrena taldearen bilera irekia. Portalean.

ANTZERKIA

20.30. "Hipo y Condriás" (Markus&Juanmanolo). Sarrera: 5 euro. Debabarreneko Eskolarteko XXIX. Antzerki Erakusketa. Coliseoan.

HOROSKOPOA

ARIES

Pozik egoteko aitzakia daukazu. Asko ipiniko liriateke zure tokian; beraz, atera egizu etekinik handiena zure egoerari.

TAURUS

Denbora pasatu da, baina berak ez du ahazten. Inoiz ez da berandu barkamena eskatu eta harremana berreskuratzeko.

GEMINI

Urteko sasoirik onenean zaude. Indartsu, gogotsu eta alai! Hala ere, kontrolatu euforia hori: gehiegikeriak ez dira onak.

CANCER

Esan egia. Bestela, zurrumbilo batean sartu eta ezin izango zara hortik irten. Jakizu oso txarra zarela gezurrak esaten.

LEO

Arduratsugoa izango bazina, gauzak ondo lotuta izango zenituzke. Orain bilatzea besterik ez zaizu geratzen.

VIRGO

Angelina Jolie eta Brad Pitt banatu egingo direla ematen du: zure aukera izan daiteke! Halako gauzak ikusi dira.

LIBRA

Pentsatu duzu udan nora joan? Mugitu ipurdia, bestela bidaiarik gabe geratuko zara. Badaukazu hortik joateko dirurik?

SCORPIUS

Otorrinoarengana bisita egitea komeni zaizu. Normala da jendeak zuri berba ez egitea: hiru aldiz esan behar badizute...

SAGITTARIUS

Pekatarari halakoa... Eskerrak maliziarik ez daukazun; bestela, baten batek bereak eta bi esan beharko zizkizun.

CAPRICORNIUS

Gertatzen dena gertatzen dela, ondo egin duzu egoerari aurre eginez. Horrela hobeto irtengo zara sartu zaren horretatik.

AQUARIUS

Atsegina, gozoa, lagun bikaina, eskuzabala, sentibera... Denetik duzu: edonork nahiko zintuzke bikote moduan.

PISCIS

Iragana ona izan bada ere, gozatu egunerokotasunaz eta etorkizuneari pentsatu. Ahalegindu zaitez hobetzen.

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

- ✓ **Maiatzaren 19ra arte**
TXOTXONGILO erakusketa. Galiziako Etxean.
- ✓ **Maiatzaren 26ra arte**
JAVIER FERNANDEZ FERRERASen argazki erakusketa. Portalean.
JUAN ARMENTIAren "Barnetik. Más allá del Olimpo" argazki erakusketa. Portalean.
BOSCO MERCADALen "Fotopoemas" argazki erakusketa. Portalean.
40. NAZIOARTEKO GIPUZKOA SARIA argazki erakusketa. Topalekuan.
- ✓ **Maiatzaren 31ra arte**
32. ARGIZAIOLA LEHIAKETA argazki erakusketa. Klub Deportiboan.
DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEAren argazki erakusketa. El Ambigú eta Portalea tabernetan eta Untzagako jubilatutuek.

lehiaketak

- ✓ **Maiatzaren 10era arte**
SANJUANAK 2013 EIBARREN KARTEL LEHIAKETA. Pegoran.
ALKOHOL LARREGI EDATEAREN KONTRAKO PEGATINA LEHIAKETA. Pegoran.
- ✓ **Maiatzaren 20ra arte**
ON EKIN! ENPRESA PROIEKTU ETA IDEIA LEHIAKETA. ekingune@ekingune.com edo 943-208420.
- ✓ **Maiatzaren 23ra arte**
KAMISETEN DISEINURAKO LOGOTIPO LEHIAKETA. jaixakherrixakherrixandako@gmail.com
- ✓ **Ekainera arte**
LI (BURU-HAUSGARRIAK) IRAKURKETA ETA IKERKETA LEHIAKETA. Juan San Martin liburutegian.

farmaziak

- ✓ **barixakua 10**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- ✓ **zapatua 11**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- ✓ **domeka 12**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- ✓ **astelehena 13**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- ✓ **martitzena 14**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- ✓ **eguztena 15**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **eguna 16**
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
- ✓ **barixakua 17**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 15.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45, 15.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

3			2	5		6
2			9		3	
	1		6			
	7	6				
1			4	3		9
					2	5
			9			4
		2		8		7
	8		6	4		2

SUDOKUA

9	7	1	2	3	6	5	8	4
3	8	2	4	7	5	9	6	1
6	5	4	1	8	9	2	7	3
4	6	3	5	9	7	8	1	2
1	9	7	6	2	8	4	3	5
8	2	5	3	4	1	6	9	7
2	4	6	9	1	3	7	5	8
7	3	9	8	5	4	1	2	6
5	1	8	7	6	2	3	4	9

AURREKOAREN EMATZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Errekatxun. 2 logela, egongela-jangela eta komuna. Guztiz berrituta eta jantzita. Kalefakzioa. Tel. 659-757572.
– Babes Ofizialeko pisua salgai Sorauluzen. 3 logela, trasteroa eta garajea. 80 m². Tel. 637-321970 eta 635-728510.
– Loft bikaina salgai edo alokagai. Argitsua. 102 m² + 40 m²ko lorategia. Tel. 656-723437.

1.2. Errentan

– Neska arduratsua pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 618-354218.
– Buhardila txukuna alokagai Txontan. 5. pisua. Igogailurik gabe. Tel. 626-144098.
– Pisua hartuko nuke errentan Eibarren. Tel. 679-910991.
– Pisua hartuko nuke errentan Eibarren. Tel. 632-883925.
– Senar-emazteek pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 632-450278.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Mobilhome salgai Mutrikuko Santa Elena kanpingean. 2 logela, egongela eta komuna (dutexarekin). Abantzia sukaldearekin. Etxetresna elektriko berriak. Itsasora begira. Tel. 650-818642 eta 943-203091.
– Karabana salgai. Guztiz ekipatua eta Mutrikuko Santa Elena kanpingean gordeta. 2 girokoa eta 5 plaza. Abantzia finkoa: sukaldea, garbigailua, hozkailua... Preziosa adosteko. Tel. 607-230077. Edu.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Industri-pabilioia alokagai Elgoibar-Olaso poligonoan jubilatzaiearengatik. Mekanizatuetarako makinaria aukeran instalazio osatua. Tel. 649-258913.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 688-234524.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-564995.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-197217.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka eta asteburuetan ere bai. Tel. 618-354218.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 674-909705.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 943-748899 eta 685-724861.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Erreferentziak. Tel. 615-007377.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta soziedadek edo pegorak garbitzeko. Tel. 628-014327.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-255663.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauz ere. Tel. 639-962219.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 689-436454.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-004374.
– Neska eskaintzen da goizez lan egiteko. Erizain-laguntzailea. Erreferentziak. Tel. 616-607121 eta 943-207183.
– Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 606-502567.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa edo gauz. Erreferentziak. Tel. 662-252150.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 690-925929 eta 943-744429.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 657-396018.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 602-894478.
– Psikologoa eskaintzen da kabinete batean lan egiteko. Esperientzia helduen eta haurren psikoterapian eta taldeko terapian. Tel. 696-856439. Yolanda.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 648-196651.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauz eta asteburuetan ere. Tel. 638-824278.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-474923.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 679-910991.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-883925.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 627-652870.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka eta asteburuetan ere. Tel. 631-385949. Carmen.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 686-739143.
– Klinikari laguntzaile euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta gauz ere. 3 urteko esperientzia. Tel. 616-181118.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 639-962219.
– Emakumea eskaintzen da orduka zaintzeko eta garbiketarako lanearako. Tel. 690-783065.
– Haur Hezkuntzako goi mailako teknikari euskalduna eskaintzen da lan egiteko. Esperientzia. EGA eta FIRST tituluak. Tel. 660-522271.
– Neska eskaintzen da ostalaritzan lan egiteko, nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 600-728437.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta edozein lan egiteko. Tel. 663-609994.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta edozein lan egiteko. Tel. 631-372707.
– Lehen Hezkuntzan lizentziatua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 675-765376 eta 943-031697.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Tel. 672-853930.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Orduka. Tel. 632-054894.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile moduan eta garbiketarako egiteko. Tel. 666-008974.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Emakumea eskaintzen da portugesez edo ingelesez klaseak emateko. Frantsesezko klaseak jasoko litzuzke berak trukean. Tel. 662-134523.
– Arkitekto euskaldunak DBH eta Baxilegoko klase partikularrak ematen ditu: Matematikak, Fisika, Kimika eta Marrazketa Teknikoa. Tel. 615-704540.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Ostalaritzarako tresneria salgai negozio aldaketagatik: kafetera, izotz-makina, musika aparatua (banaka ere saltzen dira). Tel. 665-720977.
– Ohe-kabia salgai, 90ekoa. Oso egoera onean. 100 euro. Tel. 628-341448.
– Sei hilabeteko umearentzat silla erosi nuke. Tel. 687-261144.

6.2. Eman

– Hilabeteko katarra eta katemea oparitzen dira. Tel. 626-553178.
– Baserrian jaiotako katakumeak oparitzen dira. Tel. 646-601923.
– Urtebeteko Gorbeaiko artzain-txakurra oparitzen dut. Emea. Oso alai. Tel. 695-716229.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Umearen urrezko pultsera (izenarekin) aurkitu dut Txalxa Zelai kalean. Tel. 610-816837.



Policlínica Gipuzkoako Kontsulta Zentroa
Ibarkurutze kalea, 2 -EIBAR-
Telefona: 943 25 61 00

POLIKLINICA GIPUZKOA

ENRIQUE PÉREZ DE AYALA DOK.

POLIKLINICA GIPUZKOAKO KIROL-MEDIKUNTZA ZERBITZUKO BURUA

“DESHIDRATAZIOA KIROL-JARDUERAN OSO KONTUTAN HARTU BEHARREKO GAIA DA”

Pérez de Ayalak hitzaldia emango du datorren eguaztenean, maiatzak 15, Poliklinika Gipuzkoaren Osasun-ikasgela izeneko zikloaren barruan. Konferentzia arratsaldeko 19.30etan izango da Portalean. Medikua esanetan kirola egiterako orduan edan beharreko edariak gatz mineralak eta azukreak kopuru orekatuan izan behar ditu.

“EGIZU KIROLA BURUAREKIN. Jakizu nola kontsumitu behar diren elikadura-osagarriak eta edari isotonikoak” izenburupean, Enrique Pérez de Ayala Poliklinika Gipuzkoako Kirol-medikuntza Zerbitzuko buruak elikadura-osagarriak eta edari isotonikoak kontsumitzeko modu egokiaren inguruan jardungo du, eta hainbat aholku ere emango ditu kirol-jarduera osasungarria egiteko.

“Deshidratazioa kirol-jardueran oso kontutan hartu beharreko gaia da, bereziki iraupen-lasterketetan. Edariak gatz mineralak eta azukreak kopuru orekatuan izan behar ditu”, azaldu du Pérez de Ayala medikuak. Horrez gainera, elikadura-osagarriak, kirolariaren metabolismoa aztertutakoan eta haren energia-maila zehazterakoan kontsumitu behar direla ere aipatu du.

Errepidean edo mendian lasterketa bat edo beste edozein kirol egiterakoan, mediku-azterketa egitea beharrezkoa da, osa-

Telefona: **943 00 28 00**
www.policlinicagipuzkoa.com



sunarentzat kaltegarriak izan daitezkeen arriskuak ekiditeko. Espezialistak dio Poliklinikako Kirol-medikuntza Zerbitzutik “entrenamendu egokitu eta pertsonalizatu planifikatzen dugu. Esfortzu-probek ematen dizkiguten datuak kontutan hartuta egiten dugu hori; proba horretan zehazten da oxigeno-kontsumoa eta atari anaerobikoa edo neke muskularra ezarri”.

Ikerketa horietan, zintan egiten den proban, bidez grabatzen da oinkada, zuzenketak egin ahal izateko. Gainera, Zerbitzu horretan, esfortzuaren protokolo espezifikoak dute mendi-lasterketak eta trekking-irteerak egiten dituztenentzat, lasterke-ta edo martxaren erritmoa egokitzeko.

Espezialistak dioten moduan, kirolariak beren gaitasun fisikoa %30era arte handitu dezakete mediku-kontrolak eginez. Poliklinika Gipuzkoa erreferentziazko ospitalea da kirol-medikuntzan eta Real Sociedad taldearen osasun-zentroa ere bada.

“Kirolariak beren gaitasun fisikoa %30era arte handitu dezakete mediku-kontrolak eginez”

POLIKLINICA GIPUZKOAKO KIROL MEDIKUNTZA ZERBITZUA: 943 00 27 38



“EGIZU KIROLA ZENTZUZ: EZAGUTU NOLA KONTSUMITU BEHAR DIREN ELIKADURA OSAGARRIAK ETA EDARI ISOTONIKOAK”



DATA MAIATZAREN 15ean **ORDUA 19.30 h**
TOPALEKUA Eibarko Portalea Udal Kultur Etxea



POLIKLINICA GIPUZKOA
www.policlinicagipuzkoa.com

garraio publikoa Gipuzkoa



Mugirekin, zu irabazle

Gipuzkoako garraio publikoa bateratzen duen sistema berria duzu.



Pertsona guztien mesederako tarifa bateratuak.



Garraio-aldaketak baldintza onetan.



Erabileraren araberako deskontuak.



Talde bereziei zuzendutako hobariak.



Gipuzkoako Garraioak
Gipuzkoako Garraioen
Lurralde Agintaritzaz

Transportes de Gipuzkoa
Autoridad Territorial del
Transporte de Gipuzkoa

 943 000 117
www.mugipuzkoa.com